

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 3067

*AGINDUA, 2021eko maiatzaren 24koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez xedatzen baita Ugaitz Zabala Gómez jaunaren kargu-uztea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko behin-behineko langile gisa.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.2 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluan jasotakoa aplikatuz, ondoren zehaztutako kargu-uztea formalizatzen dut. Horrela, bada, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Ugaitz Zabala Gómez jauna Koordinazio eta Politikako aholkulari kargutik kentzea (5318 kodea eta 1 dotazioa, zuzendari mailarekin), beste kargu bat beteko baitu Administrazioan, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargutik kentze honek 2021eko maiatzaren 24an izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 24a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.